

TOMAS AQUINOKOAREN TESTUAREN KONTZEPTUAK



1. Zientzia filosofikoa ez bezalako doktrina

Tomasen testuan aztergaia da "zientzia filosofikoa ez bezalako doktrina" beharrezkoa den. Tomasek hemen erabiltzen duen izendatzeko modu horretan bertan ikus dezakegu bien artean alderatze bat dagoela ("ez bezalako"). Alderatze hori, edozein zientzia beste baten aldean jartzen den guztietan, biek dituzten aztergaia, oinarriak eta metodoak kontuan hartu behar ditugu bien arteko desberdintasunak agerian gelditu daitezkeen.

Esan dezakegu filosofia ez bezalako zientzia hori, beraz, desberdina izango dela dituen aztergai, oinarri eta metodoei dagokienez.

Filosofiak duen oinarria arrazoimena da, eta bere metodoa argudiatze razionala da.

Bere aztergaia oso zabala izan daiteke: Izatea.

Jakina, badakigu filosofia ez bezalako zientzia, Tomasen testuinguruan, teologia dela. Eta horren aztergaia Jainkoa eta bere Kreazioa dela. Bere oinarria: errebelazioa, hau da, Jainkoak berak gizakiari jakinarazi diona, Biblian bildutakoa. Bere metodoa, oinarri hori kontuan harturik, argudiatze razionala da.

Tomasek esango zuen biak bateragarriak direla, eta azken hori, teologia, beharrezkoa dela gizakiaren salbamena bermatzearren.

2. Diziplina filosofikoa

Diziplinak "jakintza arloa edo zientzia" esan nahi du. Diziplina filosofikoa, beraz, filosofiaren sinonimo bat da.

Ia ia sortu zenetik, Kristautasuna Filosofiarekin erlazionatuta egon da, hau da, Teologia eta Filosofia elkarren arteko erlazioan daude. Tomasek erlazio horri esanahi berri bat eman zion eta honela labur daiteke:

- Filosofiak bere ezagutza-eremu propioa du: Munduko gauza naturalak.
- Teologiak, berriz, errebelazioak jakinarazi dizkigun egiak aztertu behar ditu.
- Hala ere, biek ezagutza-eremu bat konpartitzen dute: "fedearen hitzaurrea": Jainkoaren esentzia eta existentzia, adibidez. Eremu horretan Filosofia lagungarria izan daiteke Teologiarentzat.

3. Arrazoia

Gizakiari dagokion adimenezko ahalmena, mundua ezagutzea ahalbidetzen diona. Dituen ahalmen guztien artean gorena da, gainontzeko animalietatik bereizten duena.

Ahalmen horri esker gizakia gai da mundua ezagutzeko, hau da, Tomasek munduari buruz duen ulertzean, gauza naturalak.

Horrez gain, Tomasek onartu zuen giza-arrazoia gauza naturalen gaineko ezagutzatik abiatu naturaz gaindiko gauzak ezagutzera iritsi daitekeela. Baina, ezagutza-bide horretan gerta litezkeen huts egiteak eta okerrak ekiditeko berma gizakiak eduki dezan, Jainkoak errebelazioa eskaini ziola zioen.

Beraz, arrazoiak duen duintasuna eta autonomia aitortu arren, fedea eta errebelazioaren beharra defendatu zuen.

4. Gizakia

Gizakia Jainkoak sortu edo kreatu duen izaki bat da. Kreatura guztiak bezala, izaki finitua da eta Jainkoarengan du bere azken funtsa edo oinarria.

Izaki kreatuak azaltzeko Aristotelesek erabili zituen printzipioetatik baliatzen da Tomas Aquinokoa. Horren arabera, gizakia materia eta formaz, **gorputza eta arimaz osatutako izaki bat da.**

Gorputzaren bidez sentimenezko munduari lotzen da gizakia, eta arimaren bidez mundu espiritualari. Sentimenezko munduan izaki gorena da, baina izaki intelektualen artean beheagoko izakia da (bera baino goragoko mailetan aingeruak eta jainkoa daude).

Tomasek gizakiari buruz duen kontzeptuak Aristotelesen pentsamendua eta pentsamendu kristaua uztartzen ditu. Aristotelesengandik arimari buruzko azalpena hartu zuen Tomasek: arima bizitzaren printzipioa da eta gorputzak behar duen forma da berak potentzian duen bizitza aktua izan dadin.

Aristotelesen pentsamenduan erroturik, Tomasek bereizi zituen gorputzari dagozkion ahalmenak (mugitu, elikatu, ugaltu, sentitu) eta gorputzari ez dagozkion ahalmenak (adimena eta nahimena). Platonen antzera, gizakiaren dualismoa defendatu zuen, baina Tomasen ustez "gizakia" gorputz-arimaz osatutako batasuna da, eta ez, Platonek pentsatu zuen moduan, arima.

Gizakia, izaki guztiak bezala (Aristoteles), berari dagokion perfekziora zuzenduta dago.

Eta, Tomasen ustez, gizakiak bere azken xedea edo perfekzioa Jainkoarengan aurkituko du.

Hiru zentzutan da **Jainkoa gizakiaren azken xedea**:

- Gizakiak duen ahalmen gorena arrazoimena denez, bere perfekzioa egia osoa aurkitzean datza. Jainkoa egia gorena denez, denaren oinarria eta funtsa denez, gizakiaren arrazoimenak bere azken xedea iritsiko du **Jainkoa begiestea** iristen badu. Hori hil ondorengo bizitzan lor daiteke, Jainkoa aurrez aurre ikustearekin Horren gaineko ezagutza purua eta zuzena lortuko baitu.
- Gizakiak borondatezko ekintzak egiten ditu, eta ekintza guztiak ongi bat iristeko egiten ditu (Aristoteles) . Gizakia berez ongia bilatzen du. Ongi gorena Jainkoa denez, gizakia Ongi goren horretarantz erakarria da, bertan berak bilatzen dituen ongi guztien betetasuna baitago. Ekintza onak egiteak, hau da, **bertutezko ekintzak egiteak Ongi gorena den Jainkoarengana eramango du**.
- Gizakiak duen azken xede hori mundu honez haraindi iritsiko du, baina mundu honetan duen bizitzan irabazi behar du beste gizakiekin bizitza konpartituz. Gizakia **izaki politikoa** da berez (Aristoteles). Erkidego politikoak gizakiari dagokion ongi gorena lortzeko antolatuta egon behar du. Horregatik **legeak**, azken batean, unibertso legegilea den **Jainkoaren legearekin bat etorri** behar dute, horrela gizakia bere azken xederantz zuzenduta egotea bermatuko baita.

5. Jainkoa

Tomasek Jainkoaren existentzia frogatzeko bost bide formulatu zituen. Bide horietan guztietan prozedura komun bat aurkitzen dugu, non abiapuntua sentimenezko esperientziak ematen digun ezagutza bat den. Horietan ere ikus ditzakegun Jainkoari dagozkion atributuak edo ezaugarriak.

Horren arabera, Jainkoa Higiezina den Higiarazlea, Kausarik ez duen ororen Kausa, Guztiz perfektua den izakia, Beharrezkoa den Izaki infinitua eta Adimen Goren Unibertsoa. Atributu horiek guztiak Aristotelesen pentsamenduan dute jatorria.

Horrez gain, Tomasen pentsamenduan Aristotelismoa eta Pentsamendu kristaua uztartzen direnez, Jainkoari dagozkion atributu horiez gain, Jainkoa denaren Kreatzailea eta azken xedea dela esan beharra dago.

Azkenik, Tomasen metafisikan oso garrantzitsua den kontzeptu bat kontuan hartu behar dugu: Esentzia eta existentzia bereiztea. Printzipio hori kontuan harturik Jainkoari buruz Tomasek esan zuen existentzia bere esentziari dagokiola berez, hau da, zerizana (zer den galdetzen dugunean) eta existentzia bat datoz (berez existitzen den izakia dela esan behar dugula).

6. Salbamena

Zentzu zabalean, alde batetik gaitzetik askatzea da salbamena, bestaldetik, eta horrez gain, bizitza bete lortzea da.

Tomasen pentsamenduan, gizakiak bere bizitzaren betetasuna lortuko luke bere perfekziora edo azken xedera iristean. Hau da, Jainkoarengana iristean eta horrek berekin dakarren guztia lortzean: Jainkoari dagozkion perfekzioak direnak, Egia, Edertasuna, Ontasuna bete-bete (Agustin Hiponakoak esan zuen moduan).

Salbamen hori bermatzen duena gizakiari errebelazioaren bidez jakinarazi zaiona da.

(ikusi 4. puntua)

7. Errebelazioa

Izkutuan dagoena agerira ekartzearen ekintza eta emaitza da.

Tradizio kristauan, Tomasen pentsamenduan beraz, Jainkoak gizakiari jakinarazi dio bere salbamenerako behar duen guztia, ekintzez zein hitzez. Hori guztia Liburu Santuetan (Biblian) jasota dago. Teologiak errebelazioa oinarritzat hartuz eta horren bidez gizakiari jakinarazi zaiona argitu eta azaldu behar du giza-arrazoia lagundurik.

8. Doktrina sakratua

Doktrina: Egile edo eskola baten ideia edo iritzi-multzoa

Sakratua: Adj. jainkotasunari dagokiona.

Beraz, doktrina sakratua: Jainkoari dagozkien ideia edo iritzi-multzoa, hau da, TEOLOGIA.

“Teologia” hitza baino Tomasek “doktrina sakratua” edo “doktrina kristaua” erabiltzen ditu. Eta Jainkoa eta egia errebelatuen gaineko jakintza dela ulertzen dugu. Tomasek ulertzen du doktrina sakratuak irakatsi behar duela gizakiaren salbamenari dagokion irakaspen kristaua, eta, azken batean, errebelazioan oinarria duela.

Jainkoari dagokionez, Tomasek pentsatzen zuen bi egia-multzo daudela:

- Giza-arrazoimenak iritsi ditzakeenak: Jainkoaren existentzia, adibidez.
- Giza-arrazoimenak iritsi ez ditzakeenak: Jainkoaren hirutasuna, adibidez.

Hori dela eta, Teologiaren barne ere bi mota bereizi zituen:

- Teologia naturala: gizakiak dituen berezko ahalmenez Jainkoa ezagutzen saiatzen dena.
- Teologia sobrenaturala: Fedezko artikuluetan eta fedean oinarritzen dena.

Hala ere, Teologia naturalean ere fedeak badu bere garrantzia: Fedeak arrazoimena argitu dezake eta bere bidean gidatu, huts egiteak eta okerrak ekiditeko. Bestalde, Teologia sobrenaturalean, arrazoimenaren laguntza baliotsua da ezagutzak aztertu, sailkatu, bereizi, edo argitzeko, baita ere, teologiari erasotzen dioten horien kontrako argudioak egiteko.

9. Betiko zoriona

Gizakiak iritsi behar duen azken xedea, hau da, ongi gorena iristearekin batera dohatsutasuna (beatitudo, -nis) erdietsiko du. Bere perfekzioa iristearekin batera gozamen bete ere erdietsiko baitu.

Gizakiari dagokion azken xedea edo perfekzioa Jainkoarengana iristean datza.

(ikusi 4. puntua)

10. Fedezko artikulua

Fedezko artikulua edo dogma gauza bera da. Izen horrekin Jainkoak gizakiari jakinarazi eta Elizak irakatsi dion egia da, hau da, egia errebelatua.

Fedezko artikulua ziren hasierako kredo kristauetan (IV-V. mendeetan) biltzen ziren baiezenak eta bataioa hartzerakoan fededunak aitortu behar zituenak: Jainkoa denaren Kreatzailea dela, Jesukristo Jainkoaren Semea dela, Jesukristo hilen artetik piztu zela, eta abar.

Tomasen ustez, fedezko artikuluek doktrina sakratuan duten eginkizuna beste zientzietan printzipioek edo axiomek dutena bezalakoa da. Hasiera batean ezartzen dira, ukaezinak dira eta horietatik abiatuak argudiaketaren bidez beste egia batzuk ondorioztatzen dira.

11. Metafisika

Aristotelesek pentsatzen zuen bezala, Tomasen ustez metafisika izatea, den heinean, aztertzen duen zientzia da, eta, hori dela eta, izatearen lehen kausak eta printzipioak aztertzen dituen zientzia da.

Aristotelesek bezala, Tomasek lau kausen teoria, substantzia-akzidenteen printzipio ontologikoa eta potentzia eta aktuaren teoria onartu zituen.

Baina Arsitotelismoa eta Kristautasuna uztartu nahian, printzipio metafisiko berri bat kontuan hartu zuen Tomasek, Avicena filosofo musulmanak erabilia zuena: esentzia eta existentzia bereizten duen printzipioa.

12. Herejeak

Erljio batean aintzat hartzen den dogmaren bat ukatzen duena herejea da. Dogmek edo fedezko artikuluek teologian duten eginkizuna beste zientzietan printzipioek edo axiomek dutena bezalakoa da, Tomasen ustez. Horregatik, pentsatzen du berak, hereje batek fedezko artikulua bat ukatzean, batek zientzia bateko printzipio bat ukatzen duen moduan egingo luke. Batek ukatzen badu, adibidez, gauza bat ezin dela bera baino txikiagoa den gauza batean sartu, ez genuke bere kontra ezer argudiatuko, ukatzen duena nabaria eta ukalezina baita. Saiatuko ginatke nabaria den hori ikustarazten, besterik ez. Horren antzera, hereje batek fedezko artikulua bat ukatzen badu ez genuke bere kontra ezer argudiatuko. Egingo genukeena fedezko artikulua gogoraztea izango zen.

13. Azaldu esaldi hau: “Zientzia filosofikoetan behe mailakoek beren printzipioak frogatu gabe uztea.....”

Zientzia filosofikoetan mailakatze bat dago. Mailakatze horren gailurrean metafisika dugu. Metafisikak izatea bere osotasunean ikertzen du, bere printzipio nagusiak, bere lehen kausak eta oinarriak azaldu nahian. Behe mailako zientzia filosofikoek izatetik zati edo alderdi bat hartzen dute aztergai: Antropologiak gizakia du aztergai, Biologiak izaki bizidunak hartzen ditu aztergai... Behe mailako zientzia filosofiko guztiek metafisikak azalduko printzipioak eta oinarriak kontuan hartzen dituzte, eta ez dituzte frogatu behar, aldiz, horietatik abiatzen dira beren ikerketa-lanetan.

14. Azaldu esaldi hau: “Doktrina honi (teologiari) hobekien egokitzen zaiona aginpidearen bidetik argudiatzea da”

Aginpidearen bidetik argudiatzean, argudio bat oinarritzeko, denok onartzen dugun batek esandakora jotzen dugu, berak duen prestigioarengatik. Duen prestigio horrengatik, arlo batean berak esaten duena onartzeko modukoa dela pentsatzen dugu. Horrelako argudiatze motan, dudarik gabe, aginpide nagusia egia osoa ezagutzen duenak edukiko luke. Tomasen ustez hori ez da zerbait hipotetiko, gerta daitekeen zerbait. Horrelako aginpidea duen zerbait egon baitago: Errebelazioa. Errebelazioaren bidez lortzen dugun ezagutza, azken batea, Jainkoaren beraren aginpidea du. Gainera Teologia duen aztergaia Jainkoa eta bere Kreazioa bada, nork Jainkoak adina ezagut dezake Kreazioa eta bere Kreazioa?